# Denbora-

## 1 Dardoak

Zer-nolako punteria duten ikusteko, dardoak botatzen hasi dira Miren eta Julen. Hauexek dira lortu dituzten emaitzak. Zenbat puntu lortu ditu bakoitzak?






Miren ............................ =




Julen ............................ =

## 2 Giltzak

Eskolako giltzak ahaztu ditu berriro Iñigo irakasleak. Eskerrak bi giltza zituen! Multzo honetatik zein dira eskolako giltzak?




## Jolasa

### Jo kriskitina!

Ea begi zorrotza eta punteria ona duzun! Uste baino abilezia handiagoa behar da kriskitina jotzeko; zer uste zenuen, bada?

**1** Lehenik eta behin, jaurtitzailea egin behar da. Horretarako, hartu metro bat soka, eta pasatu kortxotik. Sokaren amaieran korapilo bat egin behar da. Ondoren, kriskitina zintzilikatu behar da, metro eta erdira gutxi gorabehera.

**2** Sokaren mutur bati eutsiko dio jokalariak esku batekin, eta kortxoa hartuko du beste eskuan. Soka tenkatu, eta kortxoarekin kriskitina jotzen saiatuko da.

**3** Jokalari bakoitzak hamar jaurtiketa egingo ditu. Asmatzen duen bakoitzeko puntu bat eskuratuko du. Ea zer moduz moldatzen zareten!!!



# -pasak

## 3 Osatu hitzak

Ezkutuan dituen hiru objekturen marrazkiak egin ditu Saioak. Ordenatu silabak, eta osatu ezkutuan dituen gauzen izenak.







## 4 Sinonimoekin jolasean

Eskolako lagunen artean gozokiak banatu behar ditu Maiderrek: bina bakoitzari. Beraz, esanahi bereko gozokiak binaka jarri behar ditu.

## 5 Aukeratu hitz zuzena

H hizkia lantzeko hainbat ariketa ipini ditu Mertxe andereñoak. Emandako aukeretatik hitz zuzena zein den asmatu behar dute ikasleek.




Erantzunak: **1.-** Mirenek: 1.050 puntu eta Julenek: 1.125 puntu. **2.-** 1 eta 5. **3.-** Goxoki, arkatz eta koaderno. **4.-** Zura-egurra, begiratu-behatu, aldizkari-kazeta, aldizka-tarteka eta abeslari-kantari. **5.-** Hondoratu, adeitsu, errausketa, hurkotasun eta zuhaitz.